

EZKIO-ITSASO / Hogeiz gaztetxo liburutegia margotu eta apaintzen aritu dira

DV. Pazko Asteko bi egunetan airtu dira herriko hogeiz gazte liburutegi berria kolorez eta marrazkiz apaintzen eta atzotik aurrera arte lan hau ikusi ahal da liburutegi ra igotzean.

Ezkio-Itsasoko liburutegia eta Udalaren eskutik, haur eta gaztetxoentzako lantegiak antolatu ziren Pazko Asterako, hauek herriko liburutegi berria apaintzeko zuzenduta egon zirelarik. Hasiera batean hiru egunetan egin behar zuten lana herriko gaztetxoek baina azkenean bi arra-tsaldetan amaitu zuten guztia.

Lantegi honen helburuak bi izan dira: alde batetik, ondo pasa-tzeko antolatu dituzte, eta bestetik, berriz, herriko liburutegi berria eta inguruak arte-lanez apaintzeko.

Honetarako Txatxilipurdi elkarteko bi hezitzaileekin egon ziren umeak egun horietan, biak Arte Ederrak ikasitakoak. Lehenengo egunean pareta margotu eta txukundu zuten; bigarrenetan, berriz, hurrek margotutako irudiak, paretan bertan egindakoak eta bestelako lanekin apaindu zuten liburutegi ko bidea.

Lan handia etxean egin zuten herriko gaztetxoek. Guztira hogeiz bildu ziren bi egun hauetan, hauek 4-13 urte bitartekoak izan zirelarik.

Jakina denez, orain dela hilabete pare bat Ezkio-Itsasoko liburutegi a udaletxeko bigarren solairuan kokatuta dago. Bertara igo-tzeko eskuin aldetik dagoen atea ireki eta eskaileretatik igotzen gara. Bide honetan guztian ikusi ditzakegu marrazki eta irudi berezi hauek.

Spray, margo, errotulagailu, collage eta bestelakoak erabiliz itsasoan gaudela dirudi. Olagarroak, arraiak, marrazoak... eta itsasoko bestelako animaliak topatzen ditugu bidetik eta liburutegiko atera iristen garenean irla aurkitzen dugu bere tximu eta guzti.

Lan ederra egin dute herriko gaztetxo hauek eta orain liburutegira joateko bideak itxura ederra hartu du.